

**ESPAINIAKO ETA NAFARROAKO HISTORIA  
ARLOKO PROGRAMAZIO LABURRA**

Irakasleak	Txomin Fernandez Brieba, Irindatz Aurkenerena Arbelaitz, Mikel Soto Nolasco, Alaitz Ilundain Ruiz.	Maila	<b>2. BATXILERGOA</b>	Ikasturtea	2021/22
------------	---	-------	-----------------------	------------	---------

**IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN**

- Derrigorrezko ikasgaia da batxilergoko ibilbide guztietako ikasleentzat. Unibertsitatera sartzeko hautaprobaren derrigorrezko ikasgaia da.
- Astean hiru orduz ematen da.
- Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu, [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen direnak. Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

**ONARRIZKO GAITASUNAK**

Gaitasunak eraginkortasunez eskuratzeko eta kurrículumean benetan txertatzeko, ikasleen gaitasun bat baino gehiago aldi berean lantzeko aukera emanen dieten ikaskuntza jarduerak integratuak diseinatuko dira, ikasia errealtateari aplikatu diezaioten.

Landuko diren gaitasunak legeak jasotzen dituenak dira; Hizkuntza komunikazioa, matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarriko gaitasunak, gaitasun digitala, ikasten ikastea, gaitasun sozial eta zibikoak, ekimena eta ekintzailtza, kontzientzia eta adierazpen kulturalak. Informazio gehiagorako: [25/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoko irakaskuntzen kurrículuma ezartzen duena](#). (3. orrialdea, 5. artikulua)

**ETAPAKO HELBURU OROKORRAK**

Batxilergoa: [25/2015 FORU DEKRETUA-ren 3. artikulua. Etaparen helburuak. Hauetatik ikasgaiari lotutako hauek landuko dira bereziki:](#)

Ikasgai honek ikasleengan gaitasunak garatzen lagunduko du, bereziki foru dekretuan aipatutako hauek; a, b, c, d, e, g, h, i, k, l, ñ.

**EDUKIAK**

**1. MULTZOA.**

**1. GAIA. IBERIAR PENINTSULA LEHEN GIZAKIENGANDIK MONARKIA BISIGOTUA DESAGERTU ARTE.**

1. Erromatarren aurreko herriak. Kolonizazio grekoa, feniziarra eta kartagotarra.
2. Hispania erromatarra. Erromatarren konkistaren etapak Penintsulan. Erromanizazioa eta erromatarren ondarea, Espainian eta Nafarroan.
3. Monarkia bisigotua.

**2. GAIA. ERDI AROA: HIRU KULTURA ETA ETENGABE ALDATZEN DOAN MAPA POLITIKOA (711-1474)**

4. Al-Andalusen bilakaera politikoa: emireerriak Taifa erresumetara.
5. Erresistentzia-gune kristauen sorrera. Iruñeko erresuma (VIII-X. mendeak).
6. Penintsulako bost erreinuak (XI.-XIII. mendeak).
7. XIV. eta XV. mendeetako krisia.

**2. MULTZOA.**

**3. GAIA. MONARKIA HISPANIKOAREN ERAKETA ETA HAREN HEDAPENA MUNDUAN ZEHAR (1474-1700)**

8. Errege-erregina Katolikoak. Batasun dinastikoa. Nafarroako konkista. Kanpo politika. Amerikaren konkista.
9. Carlos V.aren inperioa eta Felipe II.aren monarkia hispanikoa (kanpo politika).
10. Krisi politiko eta soziala XVII. mendeko monarkia hispanikoan.

**4. GAIA. ESPAINIA, FRANTZIAREN ITZALPEAN: LEHEN BORBOIEN ERREFORMISMOA (1700-1788)**

11. Ondorengotza gerra. Nazioarteko orden berria: familia itunak. Amerika espainola.
12. Estatu berria: XVIII. mendeko erreforma borbonikoa.
13. Ilustrazioa Espainian. Despotismo Ilustratuaren erabilera: Carlos III.a.

### **3. MULTZOA**

#### **5. GAIA. ERREGIMEN ZAHARRAREN KRISIA: LIBERALISMOA ETA ABSOLUTISMOA, BURUZ BURU (1788-1833)**

- 14. 1808ko krisia eta independentzia gerra.
- 15. Iraultza liberala: Cádizko gorteak. Deialdia eta legegintza lana.
- 16. Fernando VII.aren erregealdia: absolutismoa eta liberalismoaren arteko talka.

#### **6. GAIA. ESTATU LIBERALAREN ERAIKUNTZA GATAZKATSUA (1833-1874)**

- 17. Lehen karlistaldia: zergatiak eta garapena. Ondorioak Nafarroan.
- 18. Estatu liberalaren eraikuntza Isabel II.aren erreginaldian: aldaketa politikoak
- 19. Seiurteko demokratikoa: 1868ko iraultza, 1869ko konstituzioa eta Amadeo I.aren monarkia. I. Errepublika

#### **7. GAIA. ALDAKETA EKONOMIKOAK XIX.MENDEAN**

- 20. Nekazaritza: jaun-erregimenaren indargabetzea eta lurraren desamortizazioa.
- 21. Industrializazioaren hastapenak: meatzaritza, burdinbidea eta lurralde aniztasuna (Katalunia eta Bizkaia).

#### **8. GAIA. BORBOIEN BERREZARKUNTZA: SISTEMA POLITIKO BERRIAREN EZARPENA ETA FINKAPENA (1874- 1902)**

- 22. Borboi monarkiaren berrezarkuntza, 1876ko konstituzioa, bipartidismoa eta hauteskunde manipulazioa (1875-1902)
- 23. 1898ko krisia eta ondorioak. Erregenerazionismoa.

### **4. MULTZOA**

#### **9. GAIA. BERREZARKUNTZAREN SISTEMAREN KRISIA ETA MONARKIAREN ERORIALDIA (1902-1931)**

- 24. Oposizioko indarren hazkundera: Errepublikanismoa, Kataluniako eta euskal abertzaletasuna.
- 25. Oposizioko indarren hazkundera: Anarkismoa eta Sozialismoa.
- 26. Marokoko arazoa eta 1909ko krisia.
- 27. 1917ko krisia eta sistemaren amaiera.
- 28. Primo de Riveraren diktadura.

#### **10. GAIA. BIGARREN ERREPUBLIKA ETA GERRA ZIBILA NAZIOARTEKO KRISIAREN TESTUINGURUAN (1931-1939) II. Errepublika**

- 29. Monarkiaren eroraldia eta errepublikaren aldarrikapena. 1931ko Konstituzioa
- 30. Biurteko erreformista
- 31. Biurteko erradikal-cedista.
- 32. Herri Frontea. Estatu kolpearen aurrekariak eta kausak Gerra zibila
- 33. Gerra zibilaren etapak: nazioarteko testuingurua eta operazio militarrik.
- 34. Bilakaera politikoa matxinatuen zonaldean.
- 35. Bilakaera politikoa alde errepublikarrean.
- 36. Gerraren ondorioak.

### **5. MULTZOA.**

#### **11. GAIA. FRANCOAREN DIKTADURA (1939-1975)**

- 37. Frankismoaren ezaugarri orokorrak. Sostengu sozialak eta familia politikoak.
- 38. Errepresio frankista (gerran eta gerra ondoren)
- 39. Bilakaera politikoa eta nazioarteko egoera lehen frankismoan (1939-1959).
- 40. Bilakaera politikoa eta nazioarteko egoera desamortismoaren garaian eta frankismoaren amaieran (1960- 1975).
- 41. Ekonomia frankismoaren garaian: autarkiatik desamortismora.
- 42. Erregimenaren kontrako oposizioa.
- 43. Aldaketa sozialak frankismoan.

#### **12. GAIA. ESPAINIAKO NORMALIZAZIO DEMOKRATIKOA ETA EUROPAN SARTZEA (1975-1982)**

- 44. Espainiako trantsizioa. Francoaren heriotzatik 1977ko hauteskundeetara.
- 45. Sendotze demokratikoa. 1978ko Konstituzioa nola egin zen. 23-F estatu kolpetik 1982ko hauteskundeetara.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

50/2017 [Foru Agindua](#)

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
9	1.- 4 gaiak (erromatarretatik, Borboien erreformismo ilustratura).	9	8. Borboien berrezarkuntza (1874-1902).	10	11. Frankoren diktadura (1939-75).
5	5. Erregimen zaharraren krisia, (1788-1833).	8	9. Berrezarkuntzaren krisia (1902-1931).	10	12. Espainiako normalizazio demokratikoa (1975-1982).
6	6. Estatu liberalaren eraikuntza (1833-1874).	8	10. Errepublika eta Gerra zibila (1931-39).		
6	7. Eraldaketa ekonomikoak XIX.mendean zehar.				

## METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Gaitegiaren luzera dela eta, gehien garatuko den metodologia azalpen bidezkoa izango da. Ahal den neurrian, partehartzea bultzatuko da eta ekintza bidezko metodologia ere garatuko da, asteko saioetako batean behintzat, horretarako Iturri historiko desberdinekin lan egingo da adibidez. Baliabide digitalak, internetak, bideoak, aurkezpenak, liburu eta argitalpenak, zientzia dibulgazio artikulua, eta bestelakoak erabiliko dira.

Ikasleek irakasleek classroom-etan zintzilikatutako materialak, apunteak, galdetegi eta jarduerak eta dagokionean paperezko materialak erabili behar dituzte.

Kontsulta gisa testu liburu hau gomendatzen da: HISTORIA: Vicens Vives argitaletxekoa. 2010. (Ikasleek aurreko ikasturteko ikasleei eskatu diezaiekete)

[Ikasgaiaren sites-a.](#)

[Ikastetxeak aurreko urteetan erabilitako webgunea ikasgaiaren materialekin:](#)

<https://gogoan.weebly.com>

## BERRESKURAPENA

- Berreskuratzeko azterketak, ebaluazio bakoitzaren ondoren egingo dira derrigorrez. Ebaluazio bakoitza gainditzen ez dutenek berreskurapen azterketa egin beharko dute. Berreskurapeneko nota gehienez 5 izango da.
- Ikasturte amaieran ebaluazio guztiak 5 batekin gaindituak egon beharko dira edo gutxienez 4tik gorako nota (**berreskurapena egin ondoren**) izan behar dute batez bestekoa egiteko.
- **Berreskurapen nota 5** izango da baita nahikotasunean eta ez-ohiko deialdian ere.
- **Nahikotasun azterketan**, ebaluaketa bat berreskuratu behar duenari, gainditu ezgero, jarriko zaion gehienezko nota 5 bat izanen da.
  - 2 ebaluaketa berreskuratu behar dituenak, azterketa globala egin ahal izango du, gainditu ezgero, bere kalifikazioa ateratako nota izango da.
  - Ikasturteko nahikotasun azterketak ikasturteko nota igotzeko balioko du, ikasleak azterketa

egin eta nota jeitsiko duela uste badu, ez du entregatuko eta zeukan kalifikazioa mantenduko du, entregatu ezgero, azterketa horren kalifikazioa ikasturteko kalifikazioa izango da.

- Ikasturte osoa gainditzeko nahikotasun azterketa eta nota igotzeko azterketa berdinak izango dira.

- Nahikotasuna gainditzen ez duten ikasleek **ez-ohiko azterketa** egin behar izango dute eta gaitegi guztiari buruzkoa izango da.

#### KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK

- Notaren atal bakoitzerako erabaliko diren errubrikak ikasleen eskura jarriko dira.
- Azterketak Nup-ek USE frogarako erabilitako zuzenketa irizpideen arabera zuzenduko dira.

% 85-a	<b>Azterketak.</b>
% 5-a	<b>Ikaslearen klaseko lana.</b>
% 5-a	<b>Ikaslearen jarrera.</b>
% 5-a	<b>Jarduera kalifikagarri bat edo bi ebaluaketa bakoitzeko.</b>

Lanak entregatzeko epean entregatu behar dira, bestela ez dira aintzat hartuko.

- Kopiatzeak suspentitzea suposatzen du.
- Sakeleko telefonoak institutuan debekatuta daudenez, irakasleak jaso behar izanez gero, puntu bat jeitsiko dio ikasleari ebaluazioan.

#### ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEKOAK

- **USE zuzentzeko erabiltzen diren irizpideak jarraituko dira;**

1. Adimen-heldutasuna hartuko da kontuan eta, ondorioz, prozesu historikoak ulertu, aztertu eta erlazionatzeko gaitasuna.
2. Prestakuntza, ezagutzak eta kausaltasun historikoa (arrazoiak azaltzea): Ikaslearen prestakuntza eta ezagutzak baloratuko dira kontzeptu historikoak eta horien kausak eta ondorioak modu arrazoituan azaltzean. Halaber, ideien edo kontzeptuen argitasuna hartuko da kontuan, ongi barneratu dituela erakutsiz.
3. Forma, hizkuntza eta komunikazioari dagozkien aspektuak: garrantzitsuak izango dira modu ordenatuan idaztea, ortografia, aurkezpena, estiloa eta adierazpen aberastasuna. Gainera, termino historikoak erabiltzean zehaztasuna eskatuko da. Galdera bakoitzean zuzentzaileek aspektu horiek baloratzen ahalko dituzte, gutxi gorabehera galderaren balioaren **%10-arekin**.

- **5etik aurrera gainditzen da.**

- **Borobiltzea:** kasu guztietan borobiltze matematiko arrunta erabiliko da, hau da, lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da. Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio.

**Ikasturte bukaerako** nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren dokumentu honetan jasotako borobiltze irizpidea erabiliko da.

**OHARRA:** Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar zerbait aldatzea komeni dela baloratu ezgero, horrela egingo da